



DANBOR **HOTSEN** BEHARRIK EZ...

Danborradarik gabe baina San Sebastian Eguna ospatuko dute Berastegin, Orendainen eta Leaburun > 5

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Astearta
2009-01-20

VIIURTEA 1.607.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Getariako V. Zaldi lasterketa irabazi du Iñaki Garmendiak

ORENDAIN San Anton jaien baitan egiten den txapelketan Ikatz txakurrarekin aritu zen **5**



Gazte bat jolasean. I. GARCIA

Xakearen Txoko «arrakastatsua» martxan

ANOETA Duela 2 hilabete ireki zituen atek **4**

«Erritmo onean» doa D3Mren aldeko sindadura bilketa

TOLOSALDEA Alderdien Legearen aurkakoei sinatzeko gonbita egin diete **6**



Lasterketa amaitu ostean, irabazle guztiak sari banaketan bildu ziren, Zerkausian. IDOIA LAHIDALGA

700 HAURRETIK GORA ERO-ETXE ELKARTEAREN KROSEAN

TOLOSA Eskualdeko 9 eta 14 urte arteko korrikalari gazteek Zerkausitik abiatu eta Alde Zaharra zeharkatu zuten korrika, kolektorearen lanak direla-eta ibilbidean aldaketak izan zirelako **3**



Jantzi dotore, jantzi hitza.



Salmenta puntuak: Tolosako OSKI arropa dendan
Leitzako TORREA tabernan eta HITZAREN Tolosako eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...



Bigarren porrota jarraian Bidebide Ibizarentzat

Tolosa » UPV Alava taldearen aurka 102-76 galdu zuten Gasteizen; datorren astean UPNaren aurka jokatuko dute etxean.

ERREDAKZIOA

Neurketa erabakiorra jokatzeko asmotan Gasteizera bidaiatu zuten pasa den asteburuan Bidebideko saskibaloijokalariek. Bidaiazteko baja garrantzitsuak baziren. Mikel Txiki, Joseba, Kike eta Kaiet etxean geratu ziren arrazoi ezberdinengatik. Beraien ordez aurretik partida bat jokatu zuten hiru ju-

niorrek lehen taldearekin bidaiatu zuten.

Aurkaria UPV Alava zen, azken jardunaldietan joko maila ona erakusten ari den taldea. Nabarmen goraka doa sailkapenean A1 ligan sartzeko azken ahalegina egin ez. Gorakada honen erantzuleak euren hirukoteak forma maila egokia berreskuratzean datza. Tolosarrak ederki sufritu behar izan zuten postu zein joko egoera guztietan sortzen zuten mehatxua.

Partida ederki hasi zen tolosarentzat, hasieratik etxekoek planteatu zuten zonakako defentsa ondangoinditzen jakin zuten. Bitaldeek saskia oso handia ikusten zu-

ten eta saskiraketak bata bestearen atzetik etorri ziren, erasoko jokoan defentsen gainetik nabarmen egonaz.

Lehen laurdenaren amaierarekin batera kanpotarren joko amaitu zen. «Autobusetik jaitsi gabe partida irabazi nahi izan zuten», azaldu dute taldeak. Atzean defentsako lanik egin gabe eta erasoan bata besteari pilota pasatzen partida irabazi nahi izan zen, «baina saskibaloiean eta batez ere nazional mailan atzean hartzak estutu behar dira eta erasoan jaurti eta ardurak hartu behar dira».

Baloia pasa eta besteak jaurtikiko duela pentsatzearekin ez da nahi-

koa, aukerak etengabe eskatzen dira eta iristen direnean...

Gauzak honela atsedendira 45-39ko markagailuarekin iritsi ziren. Atsedena eta gero gauzak berdin jarraitu zuten. Etxekoek pixkanaka gainera beraien erakustaldiarekin jarraitu zuten.

Azken laurdenera iritsi eta gerta zitekeen gauzarik hobereana partidua bukatzea izan zen. Norabidea galduta aritu ziren Bidebide Ibizakoak partida noiz amaituko zain. Markagailuan partidaren amaieran, beraz, 102-76 etxekoan alde.

Hemendik aurrera gogor lan egitea dagokie tolosarrei. Atzean hartzak estutu eta erasoan ardurak hartzeko ordua iritsi da, horretarako ezinbestekoa da entrenamenduetan maila ona ematea.

Hurrengo astean beste final bat izango da Usabal kiroldegian UPNA talde nafarraren aurka, 16:00etatik aurrera.

Anaitasunaren aurka berdinketa lortu du Tolosak, partida txar baten ondoren

Tolosa » Tolosako mutilak laugarren dira orain; Mondragonen aurka jokatu du datorren asteburuan.

ERREDAKZIOA

Tolosa CFko mutilak partida txarra jokatu zuten pasa den larunbatean, Berazubi futbol zelaian. Aurretik auzurri Anaitasuna taldekoak zituzten, sailkapen orokorrean azken aurreneko postuan dagoen taldea. Baina urdinek ezin izan zuten gol bat bera ere sartu. Anaitasunekoek ere ez zuten Tolosakoan atea zulatatu.

Partidak ez zuten ezer interesgarriarik izan. Bi taldeko futbolariak galduta bezala aritu ziren zelaian.

Partidaren amaieran, beraz, 0-0ko markagailua. Honenbestez tolosarrak laugarren daude orain sailkapen orokorrean, 33 punturekin. Lehen sailkatua Hondarribia da, 36 punturekin. Datorren astean, berriz, etxetik kampo ariko da Tolosa CF, Mondragonen aurka.

Laburrak

Intxurrek 6-1 galdu du Oiarzun Bren aurka

ALEGIA » Alegiako Bigarren Mailako Lurraldeko Intxurre futbol taldeak 6-1 galdu zuten pasa den asteburuan Bren aurka. Honen ondorioz taldeko sailkapen nagusian zortzigarren dago orain. Datorren jardunaldian Gazteak taldean ariko da etxean.

Autodefentsarako ikastaroa, ostiralero

VILLABONA » Autodefentsarako ikastaroa antolatu dute Villabonan eta ostiralero bilduko dira horretarako 19:00etatik 20:30era. Arduradunek azaldu dutenez, bereziki neskenzat zuzenduta dago, baina gizonezkoak ere onartzen dituzteda.

Alkartasuna bitokia urteko kuota kobratzen hasi da

ANOETA » Alkartasuna bitokia dagoeneko hasi da urteko kuota kobratzen. Ordainketa astelehenean ostiralera 18:00etatik 20:00era, martxoak 31ra arte, egin daiteke. 8 euro ordaindu beharko dituzte eta zuzendaritzatik azaldu dutenez, lehen bailehen joateko ordainketa egitera. Halaber, bazkide karneta eramateko ere eskatu dute, ordaindu dutenaren zigilua bertan jartzeko.

Tolosa » Lehen itzulia amaitu dute Laskoraingo mutilak, 23 punturekin; beste talde guztiek ere irabazi zuten.

ERREDAKZIOA

8-6koarekin irabazi zion Laskoraingek Elorriokori joan den larunbatean jokaturiko partidari. Azken emaitzak ez ezik markagailuaren bilakaerak ere «areto futbol partida baino gehiago tenis partida baten itxura izan zuen», taldeko arduradunek azaldu bezala. Tolosarrak bost aldiz aurreratu ziren eta beste hainbat berdinketa izan zituzten (1-1, 2-2, 4-4, 5-5 eta 6-6); honela ez da batera harriztekoa

Elorriokoren aurka irabazita (8-6) zortzigarren da Laskorain

Usabalgo harmailtan zeuden zaleek euren eserlekuetatik altxatzen baina baino gehiagotan.

Markagailua ikusita, argi dago bi taldeak ere bikain ibili zirela eraso jokoan, baina negargarri errestean, defentsa lanean.

Norgehiagoka, beraz, oso irekia eta gol aukera askokoa suertatu zen, gustagarria ikuslearentzat, baina bi taldeen arteko kalitate mailan dagoen aldeari erreparatu gero, orekatuta joan zen etxekoan kalterako eta ekidin beharreko nerbioak pasa zituzten laskorain-

darrek hiru puntuak poltsikoratzeko.

Ikastolakoentzat Gilek, Amatriainek, Otxoak, Saldiasak eta Telletxeak gol bana egin zuten eta Telleriak hiru. Protagonista nagusiak azken hiru horitxo hauek izan ginen. Telleriaren hat-tricka oinarritzakoa izan zen talde partidan mantentzeko eta azken bi minutuetan Saldiasak eta Telletxeak sartutako bi golekin partida erabaki zuten: 7-6 eta 8-6, Laskorainentzat.

Bigarren itzulirako helburuak

Garaipen berri honekin Laskorainek 23 puntu pilotu ditu lehenengo itzulieren amaieran eta zortzigarren dago kokatuta sailkapenaren orokorrean.

«Txapelketaren bigarren erdi-rako helburuak gauzak hobeto

egin eta bi datu horiek gainditzea izan beharko lirateke», diote taldeak. Horretarako «batez ere taldearen trinkotasuna landu beharko da gogotik, defentsa joko alegia, aurretik samurregi zulatzen baitute horitxoan atea».

Amaitu aurretik aipatu Laskorain kirol elkartearentzat asteburu borobila izan zela azken hau, lehen taldeaz gain, Javi eta Saldiasak zuzentzen duten azpiko taldeak ere irabazi egin baitzuten eta baita Pradosen neskek eta Sanchezen jubeniak ere, azken hauek Lauburuaren aurkako derbian.

Javi delegatuarekin batera, Alonso entrenatzaileak eta Endika, Amatriain, Saldias, Gil, Murgiharasarako bostekoak, Telleria, Telletxea, Barriola, Zubillaga, Otxoa eta Domentxe jokalariek aritu ziren.



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

EZ.7 "GOROSTIDI VOITH" EREMUKO ETXADI BARRUKO GUNEEN HIRI BERRITZE PLAN BEREZIAREN BEHIN BETIKO ONESPENA

Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrak, 2008ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, besteak beste, honako zati xedatzaile duen erabakia hartu zuen:

ERABAKI DU:

1.- Behin betiko izaeraz onartzea EZ.7 "Voith Gorostidi" eremuko etxadi barruko guneen Hiri Berritze Plana; FIARK Arquitectos delakoak idatzi eta Tolosako Udalak sustatzen duena, ondorengo baldintzekin:

1.- Eraikin berriak jarduerako proiektu bakarra behar du partzela bakoitzeko. Proiektu horrek partzela bakoitzaren apartaleku guztiak hartu behar ditu, bai etxebizitzak, tasatu eta babes ofizialekoak, bai plaza azpian daudenak.

2.- Urbanizazio proiektua berriz aztertu behar da eta sartu behar dira plaza horien lurrazpiaren erabilera berritik eratorritako beharrak. Hori horrela, ondorengo puntuak birplanteatu behar dira:

* Apartalekuetako komunikazio bertikaleko nukleoen ezarpena eta horrek duen eragina behin betiko onartutako urbanizazio proiektuan.

* Zer konponbide planteatzen den landare eta zuhaitzitari buruz.

* Euri-ur azalekoen bilketa, planteatutako ponpaketa-sistemak kenduta.

3.- Otsailaren 4ko 1/2005 Legearekin bat etorri, lizentziak emateko, alde aurretik lurzoruen kalitateari buruzko adierazpena egin behar du ingurumen-organak.

Bigarren.- Espediente Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea, hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan sartzeko.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratzea behin betiko onespena emateko erabakia eta hirigintzako arauak, eta hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan jaso dela ere adierazteko da.

Laugarrena.- Behin betiko onespena emateko erabakia, gainera, Gipuzkoakoan hedadura gehien duen egunkariaren edo egunkariaren er argitaratuko da.

ERREKURTUAK:

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezake interesatutako Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau argitaratu edo, kasu bada, jakinarazi eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsioa aurkezteko Udaltzari, argitaratu edo, kasu bada, jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori egin ez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu harik eta berraztertzearekin berariazko ebazpena eman edo uesteko ezespene gertatu arte.

Tolosan, 2009.eko urtarrilaren 8an.

ALKATEA

Stua. Jokin Bildarratz Sorron



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

TOLOSAKO EAZ.5 "EUSKAL HERRIA PLAZA" EREMUKO DAGOKION ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA. BEHIN BETIKO ONARPENA

Tolosako Udaltzarak, 2008ko martxoaren 18an egindako ohiko bilkuran, besteak beste, ondorengo zati xedatzaile duen erabakia hartu zuen:

ERABAKI DU:

1.- EAZ.5 "Euskal Herria plaza" eremuko Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari behin betiko onarpene ematea.

Bigarren.- Erabaki honen berri Hirigintza Departamentuari ematea.

ERREKURTUAK:

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezake interesatutako Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau argitaratu edo, kasu bada, jakinarazi eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsioa aurkezteko Udaltzari, argitaratu edo, kasu bada, jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori egin ez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu harik eta berraztertzearekin berariazko ebazpena eman edo uesteko ezespene gertatu arte.

Tolosan, 2009ko urtarrilaren 8an

ALKATEA

Jokin Bildarratz Sorron

Laburrak

Etzi, Korrika batzordeak osatzeko bilera izango da

EUSKARA ● Korrika 16 Tolosara apirilaren 2an, 10:00ak inguruan iritsiko da. Hori dela eta, antolatzaileak hasita daude prestakuntza lanetan, eta Korrika batzordeak osatzeko garaia iritsi dela diote. Hala, ekitaldiaren inguruan hitz egiteko etzi iluntzean elkartuko dira. Bilera 19:30ean izango da, Lizardi kultur elkartearen. Honenbestez, ekimenarekin bat egin nahi duenak AEKkoekin harremanetan jarrita egin dezake.

Karroza eta konpartsa lehiaketan izen-ematea

ASIA ● Inauterietarako karroza eta konpartsetan izena emateko epea ireki dute. Hau otsailaren 13a bitartean egin daiteke Kultur Etxen, goizean, 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldean, 17:00etatik 19:00etara. Bestalde, aipatzekoa da, karroza eta plataforma handien leku aldatuta ematea dagoela. Dena den, izenik gabeko hainbat plataforma txiki zeuden Amarozko paper fabrikaren alboan. Hauetatik, erabilgarriak direnak banatu zituzten atzo, eta Ferialekura eraman.

Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen. 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzarar autob. 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

700 haurretik gora atera dira Ero-Etxe elkarteak antolatutako krosean

Kirolak » Zerkausitik abiatuta, Alde Zaharretik barrena hiria zeharkatu zuten korrikalari gazteek herenegun goizean.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko korrikalari txikiaren urteroko hitzordua izan zen herenegun. Ero-Etxe elkarteak antolatuta XXII. krosa jokatu zen. Denera, 9 eta 14 urte bitarteko 700 gaztetxo baino gehiagok hartu zuten parte. Aurreko urteko zifrak gaindituz. Hala, eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, euria egiten baitzuen tarteka, eta lurra bustia zegoen, jende ugari hurbildu zen lasterketa ikustera.

Heregungo krosaren berezitasun nagusia ibilbidearena izan zen. Kolektorearen obrak direla eta, aurreko urteetakoekin alderatuz, moldaketak egon baitziren. Hala, abenduaren 31n ospatzen den Urte Zahar egunekoaren antzekoa izan zen korrikalariak zeharkatu beharreko ibilbidea. Hala ere, adinaren eta sexuaren arabera, metro gehiago edo gutxiago korritu zituzten lasterkariak.

Sei taldetan banatuta korritu zuten parte-hartzaileak. Neskak alde batetik, eta mutilak bestetik. Hala, lehendabizi, 95-96 urte bitartean jaiotakoak atera ziren. Hemen, nesketan, Marta Alonso izan zen garaila eta mutiletan, Alexander Irurzun. Helduenen ostean, 97 eta 98 urteetan jaiotakoekin txanda izan zen. Hauetan, Leire Alargun-soro eta Joannes Garikano izan ziren helmugara lehendabizi iritsi zirenak. Azkenik, 12:30 inguruan, helduenak atera ziren korri egitera. Hauen artean, Saioa Zubillaga eta Aitor Gallurralde nagusitu ziren.

Proba amaitu ostean Zerkausian elkartu ziren parte-hartzaileak nahiz ikusleak eta sari banake-



Zerkausitik abiatu ziren korrikalariak eta hiriko kaleak zeharkatu zituzten. IDOIA LAHIDALGA

tari ekin zitoen. Lehendabizikoan artean garaikurrak banatu zituzten. Dena den, gainontzeko lasterkariak ere ez ziren esku hutsik itzuli etxera, hauen artean ere opariak banatu baitzituzten. Aipatzekoa da, aurtengoan, Elkartearen saria Irene Agirrezabalarentzat izan zela. Ero-Etxek, urtero, bertako bazkide den baten seme edo alabari ematen dio opari berezi hau.

Laskoraingo, Hirukideko, Samaniego-Orixeko, eta Anoeta nahiz Irurako ikastoletako ikasleek hartu zuten parte herenegun jokatutako proban. Aurtengoa 22. aldiz izan da. Honek adierazten duen bezala, hirian eta eskualdean oso errotua eta finkatua dagoen lasterketa da Ero-Etxe elkarteak antolatzen duena. Egitasmoari laguntzeko asmoz, Tolosako denda, industria eta Udalak ekarpenak egiten dituzte.

» SAILKAPENA

Neskak

■ Benjaminak.

1. Saioa Zubillaga (Anoetako ikastola).
2. Irati Aldalur (Hirukide).
3. Izaro Perurena (Hirukide ikastetxea).

■ Alebinak.

1. Leire Alargun-soro (Hirukide).
2. Idoia Ezeiza (Laskorain ikastola).
3. Idoia Alonso (Hirukide).

■ Infantilak.

1. Marta Alonso (Laskorain ikastola).
2. Jone Gomez (Laskorain ikastola).
3. Maria Manso (Samaniego-Orixe institutua).

Mutilak

■ Benjaminak.

1. Aitor Gallurralde (Anoetako ikastola).
2. Aitor Irurzun (Irurako ikastola).
3. Unai Arrieta (Laskorain ikastola).

■ Alebinak.

1. Joannes Garikano (Laskorain ikastola).
2. Joseba Olaetxea (Laskorain ikastola).
3. Unai Aierbe (Uzturpe ikastola).

■ Infantilak.

1. Alexander Irurzun (Anoetako ikastola).
2. Andoni Elustondo (Hirukide).
3. Kepa Eizagirre (Anoetako ikastola).



Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, jende asko hurbildu zen. I.LAHIDALGA



Lasterketa amaitu ostean, Zerkausian egin zuten sari banaketa. I.LAHIDALGA

IMANOL GARCIA

Xake Txokoak arrakastarekin hasi du bere ibilbidea. Anoetako Udalak bultzatuta eta Jone Doktoriarenaren ardurapean. Orain bi hilabete hasi zen martxan. Nahi denean sartzeko eta nahi denean ateratzeko aukera dago. Ludoteka bat izango babiliz bezala. «Asmoa da etortzea jolastera eta kitto. Ez da beharrezkoa etortzea ostiralero. Libre da», azaltzen du Doktoriarenak.

Ez da haurrentzat bakarrik sortuta ekimena, batez ere hauek egoten badira ere txokoan. Gurasoentzat ere zabalik dago eta Doktoriarenak azaltzen duenez, «ona da haurren gurasoak etortzea eta jolastea beraiekin. Familiako giroa ere badago».

Xake Txokora joaten diren haurretatik gazteenak bost urte ditu eta zaharrenak 13 urte. Egun 20 bazkide daude. Zehaztu beharra dago familia guztiak bazkide karnet bakarra duela eta familia bakoitzetik anai-arrebak joan ohi direla Txokora. Gabonen aurretik bazkide gutxiago zeuden, baina egun horietan antolatutako ikastaroaren ondoren gehiago animatu dira parte hartzera Txokoan. Tolosa-Ibarra xake taldearen laguntza jasotzen dute. Bestalde, Citroen Irovisak babestuta kamisetak atera dituzte eta bazkideei ematen zaizkie izena ematerakoan.

10 euro ordaintzen ditu bazkide bakoitzak ikasturte guztirako. Doktoriarenak azaltzen duenez, diru horrekin txapelketa antolatzeko asmoa dute ikasturte amaieran. «Taldea izango da eta aukera izango dute taldean irabazteko», zehazten du Txokoaren arduradunak.

Nesken parte-hartzea bultzatzea

Doktoriarenak Xake Txokoan dagoen giroari ematen dio garrantzia. «Hemen egoten naiz haurrei laguntzeko eta joko batzuk egiteko», dio, «baina hau ez da ikastaroa. Beraien nahien arabera saiatzen naiz taldeak osatzen. Giro oso ona da. Hamabi urtekoak jokatzen dute sei urtekoekin eta oso ondo moldatzen dira elkarrekin». Helburua horixe dela dio Doktoriarenak: «Ondo pasatzea, pixka bat gehiago ikastea eta beraien artean giro polita sortzea».

Beste helburu bat ere badu Doktoriarenak: «Haur asko daude xakean jolasten dakitenak Anoetan. Orain etortzen ez direnak ere pixkana azaldu daitezela gustatuko litzaziguke». Xakean neska gutxi aritzen direla dio eta hori aldatzea gustatuko litzazioke Txokoaren arduradunari. «Orain bi urte topagu-



Giro onean aritzen dira adin ezberdinetako haurrak Xake Txokoan. I. GARCIA

Orain bi hilabete martxan jarri dute Anoetan, Hozpel kaleko Udal lokalean, Xakearen Txokoa. Ostiralero dago zabalik, 17:15etik 20:15era, eta dagoeneko 20 familia egin dira bazkide. Jone Doktoriarenak koordinatzen du eta xakean jolastuz «giro ona sortzea» du helburu.

Lauki txuri eta beltzen artean



Neska zein mutilak elkartzen dira xakean aritzeko. I. GARCIA

ne bat egin zen xakearen inguruan Gipuzkoa mailan eta 60 joan ziren eta bakarrik hiru neska joan ziren». Txokora azaltzen dira neska batzuk eta Doktoriarenak pixkana-pixkana nahi du gehiagok izena ematea.

Txokora ostiralero joaten den nesketako bat Ane Sanchez da. 10 urte ditu eta «xakea gustatzen zaidalako» joaten da. «Ondo» iruditzen zaio horrelako ekimen bat izatea eta «ikastaroetan baino hobeto» pasatzen dutela dio. Gurasoak ere azaltzen dira eta gustatzen zaio beraien aurka jolastu eta ahal bada irabaztea.

Erantzun ona

Xakea ez dela aspergarria nabarmentzen du Doktoriarenak eta horren adibide jartzen du Txokoan egiten dituzten jokoak. «Buila pixka bat ere izaten da horrelakoetan», dio. «Baldin badakizu pixka bat jolasten ondo pasatzen duzu», gaineratzen du. Ondo pasatzeaz gain, xakean jolastuz eta jokatuz buruari ere eragiten diote haurrek.

Ez zuen Doktoriarenak espero horrelako erantzunik izango zuela Txokoak. Halere 30 bazkide behar dituztela azaltzen du egitasmoari datorren ikasturtean jarraipena emateko. Ostiraletan elkartzen dira, Hozpel kaleko Udal lokalean. Hasieran ordubetez elkartzen ziren, baina ordutegia zabaldu dute, pentsatu baino lehen, izena eman duten familia kopuruarengatik. Orain 17:15etik 20:15era dago zabalik xakeraren topagunea, nahi duen guztiarentzat.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona bat behar da. Deitu 656 416 808 telefono zenbakira.

Danbor hotsik gabe ere San Sebastian Eguna ospatuko dute gaur

Gizartea » Berastegin, Orendainen eta Leaburun ekitaldi xumeak egiten dituzte gaurko egunez, bertan dituzten ermitetan.

NEREA URBIZU

Donostiakoa izango da ziurrenik oihartzun handien duen San Sebastian Eguna, baina Tolosaldean ere gogoratzen eta ospatzen dute egun hau. Argi dago, modu xumeago batean egiten dutela. Orendain, Leaburu-Txarama eta Berastegi dira egun hau gogoratzen dutenak.

Gaur da eguna bera eta danborren soinurik ez da izango hiru herri hauetan. Berastegin 10:00etan izango baita meza. Aurten ere parrokiaren izango da, herrian bertan. Herriar batek azaldu bezala, «dagoeneko hiru urte izango dira ez dugula San Sebastian baselizan ospatzen. Gehienetan eguraldiak kale egin izan digu eta aurten ere hala iragarri dute, elurra egingo zuela seguruenik». Gogoratu behar da, ermita hau mendi kaxkoan dagoela, eta batzuetan ez da erraza bertara igotzea. Beraz, aurten ere, herrian bertan izango da meza, Xabier Iturriozek emanda, alegia.

Orendainen ere goizean

Orendainen 10:30a aldera plazainguruan elkartzen dira herritarrak. Handik gero denak San Sebastian ermitara abiatzen dira Tolosatik igotzen diren txistularien atzetik. Kalejiran bertara iritsi eta Joxi Eguzkitza apaizak ematen du meza bertan. Gero, handik atera eta berriz ere herrira joaten dira, udaletxean gosaria egiteko. 50 lagun inguruko taldea biltzen da hamaiketakoan normalean. Bukatzeko, bazkaria izango da Eltxoak elkarteak, 14:00ak aldera. Horretarako izena eman dute bertara joan nahi zutenek.

Leaburukoan dantzariak

Bada San Sebastian izena daukan beste baseliza bat Tolosaldean: Leaburun dagoena, hain zuzen. Arratsaldean ospatzen dute San Sebastian. 17:30ean meza izango da eta ondoren, han bertako kanpoaldean herriko dantzarien saioa izango da. Bukatzeko afari-merienda izango da Zazpi Bidean.

Herriko dantzariak, dantzari arropa eta guzti, emanaldi bat eskaintzen dute eta txistularien laguntza izaten dute. Herri sarrerako ermitaren aurrean egiten dute eta ingurua jendez betetzen da. Mezaren ondoren izango da.



Orendainen, txistularien atzetik joaten da jendea baselizara. ANDER OTEZABAL



Leaburun arratsaldean, mezaren ondoren dantzariak emanaldia eskaintzen dute jendaurrean. N. URBIZU

» EGITARAUAK

Berastegi

■ **10:00.** Meza izango da herriko parrokiaren.

Leaburu-Txarama

■ **17:30.** Meza ermitan. Ondoren herriko dantzarien saioa kanpoaldean. Gero, afari-medienda Zazpi Bide elkartearen izango da Udalaren eskutik.

Orendain

■ **10:30.** Plazan elkartuko dira eta handik gutxira ermita aldera joango dira txistularien kalejirarekin batera. Ondoren, hamaiketako meza udaletxean.

■ **14:00.** Bazkaria Eltxoak elkartearen (aurretik izena eman dutenentzat).

Ikastolan ibilitakoen bazkaria otsailaren 1ean

ERREDAKZIOA

Amezketako herritar talde batek ikastolan ibilitakoen bazkaria antolatu dute. Bazkari hau otsailaren 1ean egingo dute (igandea) eta «ikastolan ibili ginen guztiok elkartzeko asmoa dugu».

«Gure andereño izan ziren Maritxu, Joxepi eta Kororekin» elkartzuko dira eta Behartzana jatetxean bazkari bat egingo dute. Beraz, «eskertuko genizueke alde zurriketorri nahi duenak harremanetan jartzea». Horretarako, honako telefono zenbaki hauetako batera dei daiteke: 943 65 05 99 (Arantxa), 669479493 (Joseba), 943240021 (Itxaso) eta 652747320 (Garbiñe). Jendea animatzea nahi dute, festa polit bat egiteko.

Izena emateko epea zabalik dago eta aste honen baitan ematea eskatu dute antolatzaileek, lehen bailehen bazkariko xehetasunak antolatzeko.

San Anton egunari lotuta Getariaren VI. San Anton Zaldi lasterketa izan zen herenegun eta bertan Tolosaldeko hainbat parte-hartzaile izan ziren. Edizio honetako irabazleak

Iñaki Garmendiak irabazi du Getariako VI. Zaldi lasterketa

Orendain » San Anton jaien baitan egiten den txapelketan Katz zaldiarekin irten zen; Asier Mujika ere aritu zen.

ERREDAKZIOA

San Anton egunari lotuta Getariaren VI. San Anton Zaldi lasterketa izan zen herenegun eta bertan Tolosaldeko hainbat parte-hartzaile izan ziren. Edizio honetako irabazleak

Orendaingoak izan dira: Iñaki Garmendia eta Katz, bere zaldia. Lasterketa hau Getariako Zaldizale Taldeak antolatzen du lasterketa hau.

Guztira 21 parte-hartzaile izan ziren Getariako Malkorbe hondartzan. Bigarren, Xanti Telleria izan zen eta hirugarren Isabel Landa iritsi zen. 1.200 metroko lasterketa zen hiru biratan eta lau tandan banatuta.

Eguraldi ona izan zen baina zaldun asko erori egin zen uretan zein

hondarretan. Hala ere, istripu larririk ez zen gertatu.

Tartearen Asier Mujika zizurkildarra ere aritu zen, baina ez zen finalerako sailkatu. Gogoratu behar da, Mujikak Donostiako aurreko asteko lasterketa irabazi zuena.

Beraz, orendaindarrak azkenean lau ediziotan txapeladuna izan den Xabin Lazkano ere garaitu zuen. Zizurkilgo VII. Zaldi Lasterketan bigarren egin zuen Iñaki Garmendiak, eta baita VI. edizioan.

Laburrak

UEMAko ordezkaria aukeratuko dute aurki

AMEZKETA » Gaur 20:30ean Udaltzeko ohiko bilkuran kultura, gizarte ongizate eta ingurumena batzordea izango da. Bertan, honako gaietaz ariko dira: kirol batzordearen osaketaz, Udaleko lokalaren eskaeraz, UEMAko ordezkariaren aukeraketaz, ikastaroetaz... Bileran irekia da.

Marce Tenaren koadroak urtarrilean zehar ikusgai

ALEGIA » Alegiako Jubilatuen tabernan Marce Tenaren ibartarraren margolanak daude ikusgai. Bertan, emakumearen gorputzak, begiak eta ninfak dira protagonistak. Ikusgai izango dira asteartetik igandera bitarte eta tabernaren ordutegiaren baitan. Margolanak kolore-erdi dagokienez bizi-biziki dira.



Promozio berria -Ibarra-

Sustatzailea:

Epergain
Eraikuntzak eta Promozioak, S.L.
Eraikitzen du:
Aburuza
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com



Eskualdeko kirolari, zinegotzi eta alkate ugari hurbildu zen atzo Notaritzara D3Mren alde sinatzera. R. CALVO

D3Mren aldeko sinadura bilketa «erritmo onean» doa

Politika » Herritarrei eta alderdi abertzaleei plataformaren aldeko sinadura emateko gonbita egin dio ezker abertzaleak.

REBEKA CALVO

Eskualdeko hainbat kirolari, alkate zein zinegotzi gerturatu ziren atzo Tolosako Notaritzara D3M plataformaren aldeko sinadura ematera. D3M datorren martxoaren 1eko hauteskundeetan parte hartu ahal izateko ezker abertzaleak bultzatu duen sinadura bilketaren kanpaina larunbatera arte, hilak 24, iraungo du.

Zizurkileko alkate ohi Juan Manuel Erasun ere han izan zen eta berak esandakoaren arabera, Tolosako Udaletxean 400 bat sinadurabildu dituzte jada eta Notaritzan ere 100 inguru. «Erritmo onean ari gara, baina, hala ere, herritarrek sinadura kanpaina honetan parte hartzeraz gona bida nahi ditugu. Izan ere, Alderdien Lege antidemokratikoa ezabatzeko oso beharrezkoa da sinadurak biltzea. Alderdi abertzaleei ere, Alderdien Legearen aurka dauden horiei, sinadura emateko eskatzen diegu, ez diegu bozka eskatzen, baizik eta proiektu politikoguztiak berdintasunean hauteskundeetan neurtu ahal izateko aukeraren alde egitea», argitu zuen Erasunek.

» SINADURA BILKETAK HERRIZ HERRI

Aduna

■ **Udaletxean.** Ostiralera arte 09:00etatik 15:00etara, eta gaur 17:00etatik 21:00etara.

Alegia

■ **Udaletxean.** Ostiralera arte 09:00etatik 14:00etara eta larunbatean 11:00etatik 13:00etara.

Aitzo

■ **Udaletxean.** Larunbatera arte 09:00etatik 16:30era.

Amezketza

■ **Udaletxean.** Etzira arte 08:00etatik 15:00etara.

Ikaztegieta

■ **Udaletxean.** Ostiralera arte 09:00etatik 15:00etara.

Anoeta

■ **Udaletxean.** Ostiralera arte 10:00etatik 14:00etara eta ostiralean bertan, gainera, 16:00etatik 19:00etara.

Asteasu

■ **Udaletxean.** Bihar 16:00etatik 20:00etara eta etzi 09:00etatik 14:00etara.

Leaburu-Txarama

■ **Udaletxean.** Bihar 08:00etatik 14:30era eta ostiralean 12:00etatik 14:30era.

Lizartza

■ **Udaletxean.** Ostiralera arte 08:00etatik 14:00etara eta larunbatean 11:00etatik 14:00etara.

Orendain

■ **Udaletxean.** Bihar eta ostiralean 12:00etatik 17:00etara.

Orexa

■ **Udaletxean.** Gaur eta ostegunean 09:30etik 14:00etara.

Tolosa

■ **Udaletxean.** Ostiralera arte 08:00etatik 11:00etara, etzi 18:30etik 20:30era eta larunbatean 11:00etatik 13:00etara.

■ **Notaritzan.** Ostiralera arte 10:00etatik 13:00etara, eta bihar arratsalde, 16:00etatik 19:00etara.

Villabona

■ **Udaletxean.** Ostiralera arte 08:00etatik 14:00etara; gaur eta etzi, 19:00etatik 20:00etara.

Zizurkil

■ **Udaletxean eta Aurrera plazako udal bulegoetan.** Ostiralera arte 09:00etatik 14:00etara, eta larunbata 10:00etatik 13:00etara.

Ibarra

■ **Udaletxean.** Gaur 08:00etatik 11:00etara.

Langostinoko kideak pozik iaz jasotako erantzunarekin

Ibarra » Langostino Moto Elkarteak iaz antolatutako irteera bakoitzean, batz bestea, 85 pertsonen hartu zuten parte.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Langostino Moto Kultur Elkarte oso pozik agertu da iaz antolatutako irteerak izandako erantzunarekin.

Argitutakoaren arabera, iaz, batz bestea, 85 pertsonen hartu zuten parte irteeretan. Moskik, elkarte-ko lehendakariak, hala ere, argi du aurtengoan zaila izango dela kopurua berdintzea, baina «profesionalki lan eginda badakit era honetako birak egiteko eta jende guztia batera eramateko gai garela. Horretarako dugu irteeretan etortzen direnak ibilbidearekin goza dezaten lan egiten duen taldea».

Irteera, igande honetan

Horiek horrela aurten ere irteerak antolatzen jarraitzeko nahia agertu du Langostino Moto Kultur Elkarteak. Aurtengo lehena igande honetan, hilak 25, izango da.

Ohikoa den moduan irteera Ibarrrako San Bartolome plazatik izango da 9:30ean. Ibilbidea honakoa izango da: Ibarra, Tolosa, Andoain, Urnieta, Hernani, Astigarraga, Oiartzun, San Anton Urtegia eta Lesaka, bertan, Etxalar jatetxean, hamaiketako egingo dutelarik. Ondoren Doneztebeko gasolindegira joango dira eta Eloorriagatik, Iturenetik, Ezkurratik, Ezkurra mendatetik, Leitzako gasolindegitik, Berastegitik eta Berrobetik iritsiko dira Ibarrara 13:30ak aldera.

Langostino Moto Kultur Elkarte-ko kideek irteerara joateko asmoa dutenei alde aurretik izena emateko eskatzen diete, batez ere hamaiketakoan zenbat izango diren jakitea beharrezkoa dutelako. Hamaiketakoak 6 euro balio du. Bukatzeko irteeran edozein motorekin hartu daitekeela parte argitu dute elkarte-ko kideek.

Izena emateko ere bide desberdinak jarri dituzte: *langostinomoto festa@gmail.com* helbide elektronikora idaztea, edota 630 784 213 (Aitor), 670 417 915 (Moski) eta 636 403 170 (Ander) telefonoetara deitzea.



Pasa den abenduan egindako irteera baten hartutako irudia. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Iragan larunbatean zabaldu zuten berriro ere Oialde Txoko. Txokolate beroa hartu zuten 50 gaztek. HITZA

Guraso talde batek martxan jarri du berriro ere Oialde Txoko gazte gunea

Leitza » Ihoteetan euren ogitartekoak jateko aukera edukiko dute gazteek igandean, astelehenean eta asteartean.

ASIER IMAZ

Guraso talde batek Oialde Txoko martxan jarri du berriro ere. Iragan larunbatean zabaldu zituen denboraldi honetan lehen aldiz ateak, ondorioz, 12 urtetik gorako gaztetxoek aisialdirako gune berri bat dute herrian.

Larunbatetan eta igandetan egongo da zabalik 16:30etik 19:30era Oialde Txoko. Puntualki eta kasu berezietan, astean zehar bertara joateko aukera ere egongo da, horretarako bi baldintza bete beharko dituzte gaztetxoek: 10 la-

gunetik gorako taldea osatzea eta guraso taldeko kide baten ardurapean egotea.

Larunbatean 50 gaztetxo

Ateak zabaldu orduko Oialde Txokon 50 lagun elkartu ziren guraso taldeko arduradunekin batera. Txokolatada, jolasak, zozketak... eta gaztetxoentzat txoko berri bat. Musika ekipoa piztu eta batzuk mahai tenisean hasi ziren bitartean, besteak futbolinaren inguruan elkartu ziren. Mahai jokorik ere ez zen falta izan, *Twister* eta antzekoekin batera.

Guraso taldea «gustura» agertu zen denboraldi berriaren hasierarekin: «Gazteek gustura hartu dute Oialde Txokoren berria. Denbora bat geldi egon ondoren berriro ere martxan jarri dugu eta hasierako oso ona eduki du».

Aurrera begira, txapelketa ezberdinak antolatuta dituzte jadanik: Mus Txapelketa, Partxis Txapelketa eta Mahai Tennis Txapelketa izena eman nahi dutenek zerrrendak Oialde Txokon dituzte.

Ihoteetan ere zabalik

Arduradunek jakinarazi dutenez, larunbatean ohiko orduan zabalduko ditu ateak Oialde Txokok, 16:30etik 19:30era.

Igandean berriz, Ihoteak hastean, arratsaldez itxita egongo da baina afalorduan aukera berezia egongo da. Plazako musika amaitzen denean, gaztetxoek eurek emandako ogitartekoak bertan jateko aukera edukiko dute 23:00ak bitartean. Astelehenean eta asteartean ere, ordutegi eta helburu berarekin, ateak zabalduko ditu Oialde Txokok.



Herenegun ere zabalik egon zen gazte gunea, 16:30etik 19:30era. Gazteak joku ezberdinetan aritu ziren. HITZA

Leitzako pilotarien asteburuko partidak

A. IMAZ

Asteburuan pilota partida ugari jokatu dituzte Leitzako pilotariak. Lehen Mailan eta eskuz, Barriolak eta Bengoetxea VI.ak Binakako Txapelketako jardunaldi berri bat jokatu zuten. Erremontean berriz, Gazteluk duela bi aste jokatuako Binakako Finala errepikatu zuten Huarten. Aurrerako pilotariak azkenik, Nafar Jokoetan; Errekako, Zizurko eta Elgoibarko Txapelketetan eta Euskal Herriko Ligan aritu ziren.

Barriola eta Bengoetxea VI.a

Getarian jokatu zuen Abel Barriolak ostiralean Xebastian Gonzalezekin bikotea osatuz Asier Olaizola eta Patxi Ruizen aurka. Leitzarrak eta azkaindarrak 22-9 irabazi zuten eta guztira hiru partidatik hiru irabazi dituzte Binakako Txapelketa honetan.

Oinatz Bengoetxeak herenegun jokatu zuen Mungian Ruben Belokirekin Pascuak eta Titin III.aren aurka. Leitzarrak eta burlatarrak 22-8 galdu zuten eta Txapelketa hirutik partidak bakarra irabazi dute.

'Gaztelu'-k emaitza bera

Erremontean iragan asteburuan Huarten jokatu zuen Inaki Agirre *Gazteluk*. Ezkurrarekin osatu zuen bikotea, Urriza eta San Migen aurka. Binakako Txapelketaren finalean bezala, Gaztelu-Ezkurrak 40-38 galdu zuten. 38-30 irabazten joan baldin baziren ere, finalean gertatu zen bezala, Urriza-San Migelek buelta eman zioten partidari.

Aurrerako pilotariak

Pilotari gazteen artean Jaunarena eta Zabaletak promesa mailan lortutako txapela azpimarratu behar da. Gorka eta Merino errioxar sendoak zituzten aurrean Elgoibarko Txapelketaren azken partidari. Leitzarrak 22-12 irabazi zuten lehia iragan ostiralean.

Euskal Herriko Ligan, paletagoman, Iera Agirre eta Saioa Aristorenak 21-30 galdu zuten euren partida.


Zizurko Txapelketa, lau t'erdian, Ander Eskudero 9-16 galdu zuten eta Mikel Sagastibeltzak berriz 16-1 irabazi.

Errekako Txapelketa partida ugari jokatu zituzten leitzarrak. Hona hemen emaitzak: Illaregi-Zabalak 18-11 irabazi zuten; Eraso-Eskudero 4-18 galdu zuten, Gil-Lezeak bezala; Olano-Iparragirek 18-1 irabazi zuten; Jaunarena-Apeztexea bikotearen aurkariak ezin izan zuten jokatu eta Eraso-Onsalok 3-18 galdu zuten euren partida.

Nafar Jokoetan azkenik, Aurrerako pilotariak 7 partidak jokatu zituzten eta hauetatik bostetan ez zuten garaipenik lortu: Inigo Mitxaus-Inaki Saralegik 10-18 galdu zuten; Xabier Apeztexea-Mikel Hernandezenak 10-22; Jon Sukuntza-Beniat Billabonak 7-18; Aimar Gil-Mikel Erasok 11-18 eta Dabid Muenala-Josu Sukuntzak 7-18. Euren partidak irabazi zituztenak berriz hauek izan ziren: Beniat Altzelai-Joanes Illarregik 18-4 lortu zuten garaipena eta Ander Alduntzin-Joseba Eskudero 18-11.



Nafar Jokoein batera Aurrerako pilotariak partidaz partida. HITZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leitza: 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalanztak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Amezketak.** Etzi Kultura, Gizarte Ongizate eta Ingurumen batzordeak udal batzar aretoan 20:30ean bilera egingo du. Bertan kirol batzordea osatuko da eta UEMAko ordezkaria hautatuko da. Horretaz gain, udaleko lokalak eskaera, jubilatuen programa, herriko kultur eragileei zuzenduriko diru laguntzak, jorratuko dituzte.

■ **Amezketak.** Amezketa ikastolan ibili ginenok elkartzeko asmoa dago, gure andereño izan ziren Maritxu, Joxepi eta Kororekin Behartzana jatetxean bazkari bat egingo. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki hauek: 943 65 05 99 (Arantxa), 669 47 94 93 (Joseba), 943 24 00 21 (Itxaso).

■ **Ibarra.** Udal batzar ez ohikoa

09:00etan udaletxean, proiektuak onartzeko.

■ **Ibarra.** Hilaren 23an 18:00etan Belabietan kiroldegian izango den Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen Piratak ikuskizunerako sarrerak salgai jarri dituzte 6 eurotan Ibarra Zubiaurre Tabernan, Lurdes dendan, Errotatxon, Uzturpe Ikastolan eta Tolosako Zumbeltz disko dendan.

■ **Tolosa.** Veleta-Aiz Orratz elkar-teak 75 urte beteko ditu aurten. Argazki zahar eta berrien erakusketa ari da prestatzen eta horretarako materiala biltzen ari dira. Bazkideek, bazkide ohiek eta zerbait dutenek, elkartera eraman dezakete. Informazioa 655 738739 telefono zenbakian.

■ **Tolosa.** Sahararen aldeko Euskal Karabana, *Piztu Itxaropena* lelopean. Eskualdean, Tolosaldea Saha-

rarekin elkarte ari da aurrera eramaten janari bilketa: arroza, leka-leak, pasta, hegaluzea oliotan, sardinak oliotan, azukrea eta konpresak. Urtrarrilaren 31ra arte bilduko dituzte.

Hitzaaldiak

■ **Tolosa.** DBHko 1, 2 eta 3. mailako gurasoentzat hitzaldia antolatatu du Orixe Institutuak, Drogomenpekotasunen prebentzio lana familian izenburupean. Hilario Garrudo psikologo klinikoak izango da hizlaria, 18:30ean, Gorosabel eskolako liburutegian.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Ana Jesus Ansorena tolosarraren buztin egosi artelana daude ikusgai Lanbroa tabernan.

■ **Alegia.** Marce Tenaren begiei

buruzko margolanak ikusgai asteartetik igandera bitarte Jubilatuen tabernan. Bizi-biziki eta denetan begia da jorratzen duen gaia.

■ **Tolosa.** Jose Enrique Ceberioeren olio-lanak eta akuarelak ikus daitezke Itaie tabernan.

■ **Tolosa.** Juan Jose Agirre tolosarraren margolan erakusketak Aranburu Jauregian.

Antzerkia

■ **Aduna.** Asvinenea Kultur Elkar-teak III. Poltsikoko Antzerki Lehia-keta antolatu du profesional zein amateurentzat. Informazioa eta izen-ematea, www.asvinenea.com webgunean.

Kirola

■ **Villabona.** Villabona - Zubieta goizeko mendi irteera antolatatu du Aizkari mendi elkarteak 25erako.

Informazio gehiago nahi dutenek, www.aizkari.com helbidera jo dezakete.

■ **Tolosa.** Collarada eta Pic de Moinesera irteera antolatatu du Oargi mendi elkarteak hilaren 23tik 25era (ostirala, larunbata eta igandea). Informazioa eta izen-ematea, 943 675612, 688 698642 eta www.oargi.org helbidean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa 9, 943 675118.

■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.

■ **Iruztun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarien adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Xuban Otero (Anoeta).
Gaur 6 urte.
Zorionak etxekoan partetik.



Urte askoan!

Harriet Martin Kortajarena (Zizurkil). Gaur 5 urte. Muxu handi bat familia osoaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

LIBURUA SALGAI

Salmenta:
Liburuaren prezioa: 18 €
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitzako bazkideak: 14 €

Eskaintza bereziak:

5 liburu 80€	10 liburu 140 €
-----------------	--------------------

Salmenta puntuak:
• Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitzako bulegoetan,
• Tolosako Aranburu, Babel eta Elkar liburutegietan,
• Ibarra Lurdes liburutegian,
• Villabonako Basajaun liburutegian.




1936KO GERRAKO OROITZAPENAK
Tolosaldean eta Leitzaaldean

ARANZADI
galtzaundi
hitza